

## ERAKUNDE ADIERAZPENA GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN ETA GIPUZKOAKO UDALEN ARTEKO ELKARRIZKETA ESPARRU BAT SORTZEKO

Joan den maiatzaren 14an, EUDELen Batzorde Eragilean, proposamen bat egitea adostu zen Lurralde Historiko bakoitzeko udalek eta Foru Aldundiak osatutako elkarrizketa-esparru bat sortu eta artikulatzeari buruz.

Udalak hiritarren beharrekiko hurbilen dauden erakundeak izateaz gain, lehen mailako erakundeak dira, Udal Legeak aitortzen duen bezala. Horren haritik, Euskadiko erakundeen arteko finantza-banaketan edozein aldaketa egiteko, erakunde guztien artean eztabaidatu eta adostu behar da, betiere alde guztiek informazioa gardentasunez partekatu ondoren. Inola ere ez da onartzen alde batek bakarrik jokatzea.

COVID-19aren pandemiagatik bizi dugun salbuespenezko egoerak zuzeneko eragina dauka Euskadiko ogasunen zerga-bilketetan, hain zuzen ere enpresen eta familien ekonomian gertatzen ari diren ondorioengatik. Era berean, administrazio guztien partetik gizarteari zuzendutako laguntzak eskatzen ari dira, bereziki udalen partetik.

Joan den 2020ko maiatzaren 12an, Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak 3/2020 Foru-Dekretu Araua onartu zuen, Udal Finantzaketarako Foru Funtza Covid-19aren pandemia orokorrak eragindako krisi sanitario, sozial eta ekonomikoaren ondoriozko zerga-bilketako beherakadara egokitzeko; izan ere, % 20tik % 25era bitarteko beherakada kalkulatu da.

Maiatzaren 15ean, Gipuzkoako Finantzetako Lurralde Kontseilua deitu zuten 3/2020 Foru-Dekretu Arauaren berri emateko eta Gipuzkoako udalen finantzaketan izango dituen ondorioei buruz informatzeko.

Gaur inoiz baino gehiago ezinbestekoa da erakundeen arteko elkarrizketa, pandemiari emango zaion erantzun publikoa modu koordinatuan eta eraginkorrean jorratzeko. Lankidetzaz inoiz baino beharrezkoagoa dela uste dugun heinean, Gipuzkoako Finantzetako Lurralde Kontseilua gobernantza-foru bihurtu behar da udalekin batera.

Horregatik, EUDELen Batzorde Eragilearen antzera, honako akordio hauek proposatzen ditugu:

1. UFFFri buruzko elkarrizketaren aldeko apustu irmoa egitea.
2. Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzea Lurralde Historiko honetan erakunde elkarrizketa bat abian jar dadin Foru Aldundiaren eta udalen artean, hain zuzen ere COVID-19aren krisiak eragin ditzakeen zerga-ondorioei eman beharreko erantzunak adostu daitezten. Lurraldeko erakunde-eremu guztietatik krisiari erantzungo dioten ekimen eta planetan koordinatzea eta erantzunak bateratzea ahalbidetuko duen elkarrizketa bat. Finantzetako Lurralde Kontseiluak edo helburu horrekin sortutako mahai batek izan beharko luke horretarako forua.




3. Esparru horretan informazioa partekatu, proposamenak aztertu eta adostasunak lortu daitezela eskatzea, Gipuzkoako udal-finantzaketako Foru Arauan beharrezko isla izan dezan.
4. Lasarte-Oriako Udalak akordioaren berri emango die Gipuzkoako Diputatu Nagusiari, Ogasuneko Diputatuari, eta EUDELen Gipuzkoako eta EAEko zuzendariei.

Lasarte-Orian, 2020ko ekainaren 4an



Lasarte-Oria EH Bildu



Elkarrekin Lasarte-Oria Podemos

